



Mungialdeko Behargintzak hogeigarren urteurrena bete dau: lau mila lan- eskaintza baino gehiago izapidetu dira eta 1.500 persona sartu dira lan- merkaduan aldi horretan

**- Mungialdeko Enplegu eta Toki Garapenerako Agentzian mila erabiltzaile baino gehiagori
emoten jake zerbitzua urtero**

Mungian, 2022ko irailaren 30ean. Hogei urte pasau dira hasiera batean eskualdeko bederatzi udalek osatzen eben Mungialdeko Behargintzak ibilpidea hasi ebanetik. 2005. urtean Mungiako Udalaren titulartasuneko izatera pasau zan, baina eskualdeko ikuspegia eta perspektiba galdu barik, eta Mungialdea osoari zerbitzua emoten jarraitu dau gaur egun arte. Hogei urte horreetan, hasiera motela izan zan, eta lan-orientazioari, ekintzaitzari laguntzeari eta enpresa-prospektazioari buruzko zerbitzu mugatuak emoten ebazan.

Inguruko enplegarritasuna hobetzeko eta Mungialdeko ekonomia sustatzeko dinamikak bultzatzeko sortu zan erakundea, eta 2008an egoera aldatu eta zerbitzuak zabaldu ebazan. Gaur egun, Behargintzak informazioa, aholkularitza, bitartekaritza, prestakuntza eta, orokorrean, lanpostu bat lortzeko edo lan-egoera hobetzeko tresna guztiak eskeintzen ditu. Auto-kontsultarako ordenadoreak ditu, eta enplegu-eskatzailleek Internet bidez egin daikiez kontsultak enpleo-bilatzailleetan, bai eta lan-orientatzailearen laguntzagaz euren cv-a hobetu be. Ganera, enpresei laguntza eta aholkularitza emoten deutse, dagozan baliabideak eta beharrak antzemanaz, bai eta udalerrian ezarritako merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sektorea osatzen daben sektoreei be.

Gaur egun, Mungialdeko Behargintzak urtean mila erabiltzaile baino gehiagori emoten deutse zerbitzua, 20 urte honeetan lau mila lan-eskaintza baino gehiago izapidetuz eta lan-merkaduan 1.500 persona sartuz. Modu berean, entidadeak aurrez aurreko 182 prestakuntza-ekintza egin ditu, eta 3.000 persona baino gehiago prestau ditu. Enplegu-zentroa martxan jarri zanetik, 356 tailer egin dira enpleorako sarbidea eta ekintzaitza hobetzeko, 2.154 personaren partaidetzagaz. Enpresa-ekimenei jagokenez, 1.462 ekimenei erantzun jake, eta horreetatik 400 negozio baino gehiago sortu dira.

Hori gitxi balitz, urte honeetan zerbitzuak zabaldu eta azpiegiturak hobetu dira. Holan, Mungiako Oinarrizko Lanbide Heziketari instalazio barriak jarri jakoz Belako industrialdean, espezialidadeak zabaltzeaz gain (Sukaldea eta Zerbitzua, Ile-apainketa eta Estetika, Informatika



- Komunikazioak eta Iturgintza), eta erakundeak prestakuntza-gelak, banakako arreta-bulegoak eta webgunea ditu arreta osoagoa eskeintzeko.

Etorkizunerako apustua

Nagore Torre Behargintzako presidentek zerbitzuak eta eukiak zabaltzearen garrantzia azpimarratu dau “etorkizunak etenbako hobekuntzaren eskutik joan behar dau, laneko arloan zein arlo ekonomikoan aurkezten diran erronkei erantzuteko”. Gaur egun, enpleorako orientazioa, prestakuntza, gizarte- eta lan-bitartekotza, ekintzailletza eta enpresa dira Behargintzak emoten dituan zerbitzuak, “baina laguntza-neurri barriak eta errealidade aldakorrera egokitzeko neurri barriak jarriko dira martxan, beti be eskualdeko bizilagunen zerbitzura”, gaineratu dau Torrek.